

Gesto por la paz

Asken komunikatua

Es nuestro derecho Paz y Libertad. ETA EZ

Bakea eta askatasuna, geure eskubideak dira. Begibistakoa dirudi baina hona etorri gara, aldarrikapen honen atzean, ETArri exijitzeko erasorik egin ez diezagun, eta are gutxiago gure izenean. Ez dugu ez nahi, ezta behar ere, haiek babes gaitzaten. Gaur eta hemen, hain zuzen, lur hau babestea bakean uztea da. Lur hau geurea da, guztiona, eta hitzaren bidez, arrazoa argumentu gisa, eta demokraziaren bitartez ematen dugun botoarekin defendatzen dugu.

ETArri berehala desagertzeko exijitzen diogu, hiritar gehienon asmoak zapalduz, haien bidetari uko egin diezaiotela. ETA bera babesten duten horiei ere deia egiten diegu, euren dutelako terroreak duen sostenguaren ardura. Euren esku dago.

Gaur egun, denok, dugun pentsomaldea dugula, lehenago jarri behar dugu honakoa: biziaren eta askatasunaren eskubidea baturik defendatu, baita demokrazia ere. Egoera atsekabe honetan, non ezarkeria totalitarioak lekua hartu nahi duen, bakearen, askatasunaren eta demokraziaren aldeko etxe trinko bat izan behar gara.

ETAren mehatxuapean bildurrez eta artega sentitzen direnen ondo-ondoan gaude. Mehatxua salatzen duen, eta bakea eta askatasuna exijitzen dituen gizarte honen ondo-ondoan gaude. Guztion kontrako erasoan alderik gaiztoena jaso zuten biktimen ondo-ondoan gaude. Finean, hitzaren, demokraziaren, duintasunaren, biziaren eta askatasunaren ondoan eta alde gaude.

Geure eskubidea delako. ETA ez!

Bilbon, 2007ko ekainaren 9a

Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285

Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838

Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000

Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135

gesto@gesto.org

www.gesto.org